

GIZARTE-LARRIALDI EGOERETARAKO ARRETA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarrietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Zerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa, eta nola eskuratu

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Krisi egoeran edo larrialdi sozialean dagoen edozein pertsona.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Krisi-egoera edo gizarte-premia. Aurretiko beste baldintzarik gabe.

Zertan datza?

Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuak egunean 24 orduz lan egiten du, gizarte-larrialdiko egoerei berehala erantzuteko ([2.6 fitxa](#)). Gizarte-larrialdiko egoeratzat jotzen da aurreikusi gabeko gertaera baten ondorioz gertatzen dena, batez ere:

- Ustekabeko babesgabetasun-egoerak: galera eta/edo desorientazioa, zaintzailea bat-batean ez agertzea, genero-indarkeria...
- Larrialdiak salbuespenezko egoerengatik: trafiko istripuak, suteak, uholdeak edo bestelako ezbeharrak.

Bere funtzioa larrialdiko lehen arreta eskaintzea da, eta beharrezkoa den guztietan:

- a. larrialdia gertatu den lekura joan, kaltetutako pertsoneri arreta emateko;

- b. kaltetutako pertsoneri dagokien lekuetara laguntzea (osasun-zentroak, polizia-bulegoak, bulego judizialak...);
- c. beharrezkoa dena eskaintzea: premiazko garraioa, otorduak edota ostatua.

Norentzat?

Zerbitzua **krisi egoeran edo larrialdi sozialean dauden herritar guztiei zuzenduta** dago.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Ez dago aurretiazko baldintzarik, larrialdi sozialaz harago.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)